

'Santaisabeletako' argazki rallyan parte-hartze handia espero dute


Zumarraga » Uztailearen 2an, Santa Isabel egunean bertan izena eman beharko dute parte-hartzaileek udaletxeko arkupeetan.

MIRIAM LUKI

Urrerxuko eta Zumarragako argazkilarik afizionatuak biltzen dituen Argazkia elkarteak biltzen dituen Santa Isabel eguneko argazki rally-ko oinarrietan zenbait aldaketa egin dituzte aurtan. Berrikuntzen helburua afizionatuen parte-hartzea sustatzea da. «Iaz baino jende gehiagok parte hartzea espero dugu», dio elkarteak kide Ascen Gonzalezek.

Iaz zortzi lagunek parte hartu zuten. Orain arte parte-hartzaileei diapositibak eskatzen zitzaizkien, baina aurtan argazkigintza digitalera salto egin dute antolatzaileek. «Santa Isabel erromeriak festa kutsu handia du, eta horregatik Santa Lutzitan baino parte-hartze gutxiago egoten dela uste dugu. Antion kamera digital ugari ikusten dira ordea, eta horregatik oraingoa argazki digitalak eskatuko dizkiegu parte-hartzaileei».

Izema udaletxeko arkupeetan



Iazko irabazleak Legazpi dorretxean, sari-banaketaren ondoren. JAVI ALONSO

eman beharko dute Santa Isabel egunean, uztailearen 2an, 09:00etatik 10:00etara. Aurtan izen-ematea doan da, «hori ere parte-hartzea zabalatzeko asmoz».

Gaia eta bildumak

Santa Isabel jaia da aurkezten beharreko argazkien gaia. Bilduma bakoitzak sei argazki izan behar ditu, eta ondoko hel bidera bidali behar dira: argazkitaldea@yahoo.es. Txartelak Antion bertan deskargatzeko aukera eskainiko dute.

» SARIAK

- **Argazki bildumarik onena.** 200 euro eta garaikurra.
- **Bigarren bildumarik onena.** 150 euro.
- **Hirugarren bildumarik onena.** 125 euro.
- **Herriko bildumarik onena.** 100 euro eta garaikurra.
- **Sari banaketa.** Uztailearen 18an izango da, Zelai Anzti kultur etxean, arratsaldeko zazpitan hasiko den ekitaldian.

Jose Antonio Azpiazuk Legazpiko olagizonei buruz hitz egingo du

Legazpi » 400 Urtez Aske Batzordeak antolatutako hitzaldia kultur etxean izango da gaur, arratsaldeko zazpitan.


M. LUKI

Legazpi 400 Urtez Aske Batzordeak *Legazpi eta euskal olagizonak* hitzaldia antolatu du gaurko. Hitzaldia Jose Antonio Azpiazu antropologo, historialari eta idazleak eskainiko du Legazpiko kultur etxean, 19:00etan.

Azpiazuren gurasoak Oñatik baziren ere bera Legazpin jaio zen. Bost urtetik eta zazpita bitarterako garaia Oñatin igaro zuen, eta handik Aita Agustindarrekin ikastera joan zen. Erroman egin zituen Filosofia ikasketak, eta Madrileko Complutense unibertsitatean ere ikasi zuen.

Burdinarekiko interesa

Azpiazuk dioenez burdinaren mundua Euskal Herriko ekonomian zutabeetako bat da, eta be-



Jose Antonio Azpiazu. HITZA

rak aspalditik interes handia izan ohi du gai horrekiko. Izan ere, euskaldunen bizimodua eta ekonomia denbora luzez aztertu baititu.

Liburua prestatzen

Legazpi Seguratik askatu zeneko urtemugari buruzko liburua idazten ari da orain Jose Antonio Azpiazu, Lenbur Fundazioarekin elkarlanean.

Laburrak

Transexual, gay eta lesbianen eskubideen alde

URRETXU » Urretxuko Udalak gay, lesbiana eta transexualen eskubideen aldarrikapenekin bat egin du. Aldarrikapenaren ikur Hiruki Arroza bistaraziko dute etzi, larunbatean. Kolektibo horrek gaur egungo gizarteko alor askotan jasaten duen eskubide urraketa salatzen nazioarteko eguna da ekainaren 28a, eta Udalak bat egin nahi izan du EHGAM Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimendua egindako eskariarekin. Udaletxeko balkoi nagusian eskegiko dute Hiruki Arroza, kontzentrazio eremuetan homosexualak bereizteko erabiltzen zuten ikurra.

Marrakiz eta pintura eskolarako izen-ematea

LEGAZPI » Arkatza elkarteak urritik ekainera bitartean eskainiko dituen marrakiz eta pintura eskolarako izena emateko epea zabalik dago. Matrikula egiteko Legazpiko kultur etxera joan behar da. Ezinbestekoa izango da matrikulari dagokion inprimakia beteta eramatea, eta hurren kasuan sei euro eta helduen kasuan matrikularen hamabi euroak ordaintzea.

Jaien atarian haur parkea jarri dute Euskadi plazan

ZUMARRAGA » Haur parkea izango da gaur ere Zumarragako Euskadi

plazan. Hurren *goming* delakoan aritzeko aukera izango dute, baita zezen mugikorretan eta ludoteka erraldoian jolasteko ere. Txu-txu trenak Zumarragako kaleetan ibiliko da, Euskadi plazatik aterata. Jolas parkea goizean 11:00etatik 13:30era arte eta arratsaldean 16:30etik 19:30era egongo da irekita.

Urola kirol elkarteak batzar nagusia dago gaur

ZUMARRAGA » Urola kirol elkartearen futbol saileko Bazkideen Ohiko Batzarra izango da gaur Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean. Lehengo deialdia 19:00etan eta bigarrena 19:15ean egingo dute.



Zortzi lagun bisitan ibaira

LEGAZPI » Aste Berdearen barruan Udalak Ibaialde ekimena antolatu du, eta asteburuan zortzi legazpiarrek jardura horretan parte hartu dute. Agenda 21 foroko partaide diren legazpiar honek Urola errearen egoera eta ekosistema aztertu dute: ibaiertzeko flora, fauna eta uraren kalitatea. Errearen egoera «orokorrean ona» dela ondorioztatu dute. HITZA

Goierriko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • goierri@goierrikohitza.info / Tel. 943-16 00 56